

BERPIZTU ARROPA

Ba al dakizue nolako eragina duten baztertutako arropa kopuru handiek? Eta ingurumenean duten eragin handia? Arropa baztertzeak kalte handiak dakartza, izan ere, Modaeseko datuen arabera, 2023an espainiar bakoitzak, batez beste, 530,72 euro gastatzen ditu arropa eta oinetakoetan. Zenbaki honek diru gutxi dirudien arren, 25.898.008.220 miloi euro dira Espainia guztian, beraz, mundu osoan sortzen duen diru kopuru guztia imajinaezina da. Gainera, Ingurumenari begira, kontuan izan behar ditugun arlo garrantzitsu asko daude, hala nola, karbono aztarna, material toxikoak, milaka pertsonen esplotazioa edo eta animalien erabilera. Arroparen ekoizpena ingurumenean inpaktu handia duen prozesua dela garbi dago, beraz, etorkizunari begira, teknologia berrien laguntzaz jendearen kontzientzia eta ingurumenarekiko konpromisoa areagotuko dugu.

Gaur “Berpiztu arropa” aurkezteko plazera dugu. Gu Josu, Urko, Nahia eta Ainara gara, Urretxu-Zumarraga Ikastolako batxilergoko lehenengo mailako ikasleak. Dakizuen bezala, arazo bat konpontzera, prozesu bat hobetzera eta zerbitzu berri bat eskaintzera gatoz. Baina, ez dugu bakarrik komunitatean kontzientzia piztu nahi, baizik eta mundu mailan. Beraz, Jasangarritasuna bultzatzea eta kontsumo arduratsuagoa sustatzea dira gure helburu nagusiak.

Proiektu honen eginkizun nagusia, erabiltzen ez dugun arropari beste erabilera bat emateko makina bat sortzea da, hau da, bigarren bizitzak sortzen dituen makina bat sortzea. Eskuratu nahi duguna, makina bat diseinatzea da, arropa sartzerakoan, bigarren itsura bat emateko edo jantzi berri bat sortzeko ahalmena duena. Makina honek ez ditu hondakinak bakarrik murriztuko, baita arropa berriaren erosketa beharra ere, eta horrek baliabide naturalak eta energia aurreztuko ditu. Modu honetan pixkanaka arazo honi irtenbidea emanez.

Proiektu hau burutzeko, gizartean gertatutako arazoak aztertu ditugu eta konturatu gara diru asko gastatzen dugula arropa erosten, nahiz eta, etxean arropa nahikoa eduki, gainera, makina honen bidez arroparen erosketa murriztea lortu daiteke. Noizbait gertatu al zaizu gustuko duzun jantziren bat erosi eta gerora gogoko ez izatea? Edo duzun arropataz aspertzea? Seguru baietz, beraz gure proiektuaren bitartez ideia berriztatzailea eta eraginkorra den konponbide bat eskani nahi dugu, jantzien bizitza luzatuz eta ingurumen inpaktua murriztuz.